

txintxarri



Ikertu eta zabaltzen segitzen du

'Dos libros lasartearras del siglo XVII' lana aurkeztu du Jose Luis Navarrok, udalerriaren historiari buruzko bere zazpigarren lana / 2

TXINTXARRI

Argiekin jolastearen emaitza

Ibon Rosales Martinen 'Ordu txikitako argi magikoak' erakusketa ikusgai dago Jalgi kafe antzokian / 4-5

Herrian matrikulatzea sustatzeko festa egingo dute ikastetxeek, Oriarte Landaberrin / 3

Lasarte-Oriako Elkartasun Sareak otordu solidarioak prestatzeko elikagaiak jaso ditu / 6

Emakumeek Gidatutako Enpresa Onenaren Ekintzailatza Saria irabaz dezake Kairos Lasartek / 7

Inauteri larunbaterako gai alternatiboa proposatu du Sorgin Jaiak-ek / 8

Euskal Ligara igo da Ostadar Saskibaloia saileko Kadete Errendimendu Urrea taldea / 10

Lasarte-Oriako atletek sei domina jantzi dituzte Gipuzkoako txapelketan / 11



600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Hezetasuna kentzeko makinak!

Etxerako |
Trastelekurako |
Garajerako |
Lokalerako |



Haizagailuarekin Arropa lehortzeko

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Lasarte-Oriaren historiari lotutako zazpigarren liburua aurkeztu zuen Jose Luis Navarrok kultur etxeko hitzaldi aretoan. TXINTXARRI

Antonio de Oquendo eta Santa Brigidaren bizitzak liburu bakarrean bilduta

Herriarekin lotura estua izan zuen Miguel de Oquendoren bi liburu bakarrean atondu ditu Jose Luis Navarro historialariak, 'Dos libros lasartearras del siglo XVII' izenburupean. Udalak argitaratu du eta berriki aurkeztu du kultur etxean

Maitane Aldanondo

Berrogei bat herritar bertaratu ziren hilaren 17an kultur etxeko hitzaldi aretora Jose Luis Navaroren azken lanaren berri izateko. Herriari buruzko historia ikertzen eta zabaltzen urteak daramatza eta burututako ahaleginaren zazpigarren fruitua da udalak argitaratu berri duen liburua. Horri buruz hizketan hasi aurretik, Agustin Valdivia alkateak eta udaleko Kultura zinegotzi Ainara Elicecheak aurkeztu zuten egilea eta obra. Historialariaren ustez, berak beharrean, azalpenak Oquendok eman beharko lituzke, *El héroe cántabro*. *Vida del Señor D. Antonio de Oquendo* eta *Vida de Santa Brígida* lanak idaztearen zergatiari buruz esango lukeena oso bestelakoa izango zelakoan. XVII. mendean bizi izandako itsasgizon eta idazlearen faltan,

ordea, ardura bere gain hartu behar izan zuen.

Lehenik, testuinguruan kokatu zuen argitaratu berri duten lana. Lasarteri buruzko informazioa bilatzen ari zela bi lan hauekin topo egitean, harritu egin zuen bi liburu horiek 1666. urtetik aurrera idatzi izanak; ezohikoa baitzen. "Gipuzkoako herri gutxi harro ager daitezke XVII. mendean bi obra literario idatzi izanaz", are gehiago udalerrriaren tamaina kontuan hartuta, "Torre etxea eta San Pedro parrokia inguruko dozena bat etxe besterik ez zenean". Gaine-

BI LIBURUAK 1666TIK AURRERA IDATZIAK IZATEA EZOHIKOA DELA NABARMENDU ZUEN NAVARROK

ra, garai hartan literatur ekoizpena "oso eskasa" zen, "ia hutsa gure probintzian", eta analfabetismoa, nagusi. Horrek guztiak bultzatu zuen Navarro liburuak topatzen saiatzera. Interneten aurkitu zituen, ez ordea, udal liburutegian. Oro har, haiei buruzko ezagutzarik ez zenez, berak transkribatzea erabaki zuen; "jakitera eman" eta aztertu nahi duten pertsonen edo ikerlarien eskura jartzeko.

Bi pertsonaia

Miguel de Oquendoren bizitzari buruzko zenbait zertzelada emanda, liburuen edukira pasatu zen. Lehena, *El héroe cántabro*. *Vida del Señor D. Antonio de Oquendo*, 1666. urtean idatzi zuen Antonio aitaren oharretan oinarrituta. Zenbait gatazkatan izandako parte hartzea aztertzen du eta helburu du "bere balentriak



Ale bat eskuratu eta egileak sinatzeko aukera izan zuten bertaraturakoek. TXINTXARRI

goratzea, heroi bilakatzeko". Lan laburra bada ere, Navarrok nabarmendu zuen duela gutxi honi buruzko lauhundik gorako bat idatzi duela Jose Angel Achon Insasutik, okendotarren familiaren erreposoa ere barnebilduta. Halaber, aurreratu zuen berak ere okendotarrei buruzko lan bat ia amaitua duela, bereziki, Lasarterekin izan zuten lotura estua landuz.

Bigarrena, berriz, 1676an ondu zuen *Vida de Santa Brígida: Princesa de Nericia* da. Brígida Birgersdotter (1303-1373) noblezia suediarren parte izateaz gain, idazlea, teologoa, mistikoa, filosofoa, politikaria, Salvador Santuaren Ordenaren sortzailea... ere izan zen. Hari eskaini zioten Oquendok eta Teresa de San Millan emazteak familiaren lurretan altxatuko komentua eta beren bost alabak moja kongregazio horren parte izan ziren. Aurreko libururako aitaren oharrek baliatu bazituen, Navarrok sinetsi nahi du Santa Brigidaren *Errebelazioak* liburuan oinarrituta idatzi zuela hau. "Bertan errebelazio eta profeziei buruz hitz egiten du, bere bisioez eta solasaldiez".

Mantso irakurtzekoak

"Pazientziaz" eta "arduraldiz" kopia zituen bi obrak bere denbora librean; ez daki urte eta erdi edo bi behar izan zituen. Irakurri nahi dutenek ere patxada beharko duela ohartarazi zuen, ez baitira errazak. Batetik, transkribaketa bere horretan egin du Navarrok, Okendoren sintaxia eta ortografia errespetatuz, nahiz

OQUENDOK IDATZITAKO MODUAN JASO DITU TESTUAK, SINTAXIA ETA ORTOGRAFIA ERRESPETATUTA

eta egungoarekin bat ez etorri. "Egun ortografia akatsez beteta dagoela esango genuke", zehaztu zuen. Bestetik, orrietan jasotakoa ulertzeko idatziak izan ziren garaira atzera egin behar da, eta, bereziki Santa Brigidari buruzkoari dagokionean, "mantso irakurri" eta bertan jasotakoari begirunea izan behar zaio. "Kosta egiten da Santa Brigidak debruarekin, Ama Birjinarekin edo Jainkoarekin hitz egiten zuela sinestea. Gizartearen buru ziren gizonak baino argiagoa zen, eta izan zituen bisioen bidez, bizitza politikoa oso aktiboa izan zuen eta erregeekin harremana. Agintariei kargu hartzen zien zuten jarreragatik". Hala ere, ahaleginak merezi duela deritzo, "oso bizitza interesgarria" izan baitzuen.

Egin zizkieten zenbait galdera ere erantzun zituen. Esaterako, Oquendok Santa Brigidarekin izandako harremanaz. Bere alabak orden horren parte izatera pasatu zirenean gertatu zela pentsatzen du Navarrok. Ordu arte Lazkaoko komentuekin akordioa ia itxia zuen, hango mojak Lasarteko komentura etortzeko. Hori gertatu bezperetan, ordea, alabek eztabaida izan zuten aitarekin brigitarren ordenean sartu nahi zutelako. "Hor piztu zen Okendoren jakin-mina". Publikoko beste lagun batek, aldiz, Donostiako Okendo plazako estatua kendu eta herrira ekarri beharko ote luketen iradoki zion. "Izan daiteke", erantzun zion aretoan zeudenen barre artean. Abagunea baliatu zuen ere herriarekin lotura izan zuena Oquendo bakarra beharrean, hiru izan zirela argitzeko, eta hortaz, Okendo plaza beharrean, Oquendotarren plaza beharko lukeela esateko.

Amaitzean, nahi izan zutenek liburuen ale bat eskuratu zuten eta Navarrok izenpetu zien.



Ezker-eskuin: Olaia Recondo, Maite Iglesias eta Oiarza Panpliega, matrikulazio kanpaina eta festa aurkezten. TXINTXARRI

Udalerrian hazi eta ikastea sustatuko dute

Datorren ikasturtean herriko ikastetxeetan matrikulatzea sustatzeko festa egingo dute igande honetan, hilak 26, Oriarte Landaberi institutuan, 11:00etatik 13:00etara. 2 eta 3 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako ekimena dela jakinarazi dute

Txintxarri

Udaleko Hezkuntza zinegotzi Maite Iglesiasek xehezu du zer-nolakoa izango den etziko (hilak 26) festa, *Herrian ikasi eta hazi* lelopean aurrera eramango dutena. Ikastetxeetako bakoitzak postu bat izango du, horietara bertaratzen direnei azalpenak eta informazioa emateko. Bitartean, zenbait jardue-

ratan parte hartu ahalko dute Oriarte Landaberrira bertaratzen direnek: aurpegi margo-keta, globoak egiteko tailerra, malabaristak, hennarekin egindako tatuajeak eta musika. "Ekimen hori egin aurretik, Lasarte-Orian erroldatuta dauden eta matrikulatzeko adinean dauden 250 haurrek opari bategatik trukatzeko txartel bana

jasoko dute etxean, bi ikastetxeetako informazioa duen eskuorriarekin batera".

Zinegotziak balioan jarri du udalak bi ikastetxe horiekin batera matrikulazioa sustatzeko egiten duen lana: "Pixkanaka-pixkanaka fruituak ematen ari da".

Oiarza Panpliega (Sasoeta-Zumaburu) eta Olaia Recondo

(Garaikoetxea-Landaberi) zuzendariak nabarmendu dituzte haurrak herriko ikastetxeetan dakartzan onurak: "Kuadrillak sortzea, udalerriareko sustraitasun sentimendua indartzea eta familiak erosoago sentitzea".

Ate irekiak eta bilerak

Hilaren 26ko aipatu festa horren ostean, ate irekien jardunaldiak eta informazioa emateko bilerak egingo dituzte bi ikastetxeek. Garaikoetxea-Landaberi ezagutzera joan nahi dutenek hilaren 28an izango dute horretarako aukera, hiru orduz. "Etxeetan banatu ditugun eskuorrietako QR kodeak saketako telefonoarekin eskaneatuz gero, familiek aukera izango dute ordua hartzeko 17:00etan, 18:00etan edo 19:00etan", azaldu du Recondok. Bi egun geroago bilduko dira interesa dutenekin. Gogoratu du "ezinbestekoa" dela inskribatzea; herritarrek hezkuntza zentroaren webgunea (<https://www.landaberi.eus/>) edota 943-37 06 62 telefono zenbakia erabili beharko dituzte horretarako.

Sasoeta-Zumaburuko ate irekien jardunaldia otsailaren 1ean egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. "Etortzen direnei gainetik azalduko dizkiegu zentroaren funtzionamendua, zerbitzuak eta hezkuntza proiektuaren nondik norakoak", aurreratu du Panpliegak. "Inskribatu direnekin bi bilera egingo ditugu eta aurrenekoa 4an izango da, 17:00etatik aurrera". Informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 943-36 12 26 telefono zenbakira hots egin dezakete edota ikastetxearen atari digitala (<https://sasoeta-zumaburu.eus/eu/>) kontsultatu.

Otsailaren 3an hasiko da kanpaina

Datorren ikasturterako aurrematrikula egiteko epea otsailaren 3tik 14ra artekoa izango da. Horren aurretik hau egingo dute ikastetxeek:

Garaikoetxea-Landaberi

• Ate irekien

jardunaldia hilaren 28an egingo dute, 17:00etatik 19:00etara. Familiak ez pilatze aldera txandak hartzeko aukera emango dute 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan, ikastetxearen atari digitalean.

• **Informazio bilera** bi egun geroago aurrera eramango dute interesa duten familiekin.

Sasoeta-Zumaburu

• Ate irekien

jardunaldia otsailaren 1ean egingo dute, 10:00etatik 13:00etara.

• **Bi informazio bilera** egingo dituzte interesa duten familiekin eta lehenengoa otsailaren 4an izango da, 17:00etatik aurrera.

FESTAREN OSTEAN ATE IREKIEN JARDUNALDIK ETA INFORMAZIO BILERAK EGINGO DITUZTE

CEPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK urtarrilaren 27tik 31ra

• Hezkuntza orokorra

(Irakurketa, idazketa, oinarrizko ingelesa, natur zientziak, Historia...)

• DBHko titulua lortzeko taldeak

• Oinarrizko euskara

• Gaztelania atzeritarrentzat

• Irteera didaktikoak, hitzaldiak eta saio kulturalak



Deitu hitzordua eskatzeko!
943-37 64 43

Maddi Zaldua

Hamaiketako kafe eta pintxoak, edota arratsaldeko ardo kopa gozagarriago egiteko moduko erakusketa ikusgai jarri du Ibon Rosales Martin (Lasarte-Oria, 1963) herritarrak. Atzerrira egindako bidaietan, zein Euskal Herriko zenbait txokotako goizeko zein arratsaldeko argiekin jolasean lortu dituen argazki multzo zabal batetik aukeratu-tako hamabost irudirekin osatu du esposizioa. Pozik agertu da aspaldian zuen nahia gauzatu ahal izan duelako, eta hori ikusiko dutenek, eskaintza gustura hartzea desio du. Aurrerantzean ondu ditzakeen erakusketa berriei ez die aterik itxi.

Nolatan ondu duzu 'Ordu txikitako argi magikoak' erakusketa?

Arkitektoa naiz, eta lanean argazki dezente ateratzen ditut, baina ogibidearekin zerikusirik ez duten irudiak ere egitea oso gustuko dut. Bulegoko lankide batek, duela bi urte, bere argazkiekin erakusketa bat zabaldu zuen Trintxerpeko taberna batean. Hura ikusita, gogoarekin geratu nintzen ni ere horrelako zerbait egiteko, eta balizko erakusketa bat prestatzeko nire artxibategietan zein material nuen begira hasi nintzen; bertan topatu nituen denboraren poderioz atera eta bildutako irudi asko. Hori ikusirik, jazko urrian Anarekin [Jalgi kafe antzokiko arduraduna] hizketan ari nintzela, erakusketa egin nezakeen galdetu nion; berak baiezkota eman, eta martxan jarri nintzen.

Hamabost pieza zintzilikatu dituzu. Zer ikusiko dute Jalgira joan eta erakusketa ikusiko dutenek?

Erakusketa jarri behar nuen lekua ikusi nuenean, gutxi gorabehera banekien zenbat jar nitzakeen gehienez; hori izan da lan zailena, ditudan guztien artean hamabost horiek aukeratzea.

Atzerrira bidaiatzen dudanean, edota hemengo txokoetan ere zerbait ikusgarria topatzen badut, gustuko dudana-edo, argazkia ateratzen diot; horre-

"14 URTE NITUELA JASO NUEN LEHEN KAMERA; BETI IBILI IZAN NAIZ ARGAZKIAK ATERATZEN"

"Argazkien aukeraketa egitea izan da zailena"

IBON ROSALES MARTIN 'ORDU TXIKITAKO ARGI MAGIKOAK' ERAKUSKETAREN SORTZAILEA Argazkilaritzarekiko zaletasun handia du Ibon Rosales herritarrak. Han eta hemen, bisitatu dituen lekuetan lortutako irudiekin erakusketa ederra ondu du Jalgi kafe antzokian



Irudi honetan Ibon Rosales ikus dezakegu, ondu duen erakusketako zenbait pieza atzean dituela. TXINTXARRI

lakoetatik aukeratu ditut Jalgin ikusgai jarri ditudanak. Gehienbat izaten dira argi berezia dutenak, edota forma arrarokoak, eta abar. Ikusgai jarri ditudan argazkien kasuan, argiekin jolastu nahi izan nuen. Finlandiara eta Portugalera egindako bidaietan ateratako irudi batzuk erakutsi ditut, baita Baztango zein Donostia-ko beste batzuk ere, besteak beste. Agertzen diren argiei dagokienez, goizeko edo arratsaldekoak dira.

Hortik datorkio izenburua erakusketari: 'Ordu txikitako argi magikoak'?

Bai, aipatu dizkizudan garai horietako argiekin ateratako argazkiak direlako.

Bertan dauden irudiek, edo horietako baten batek badu inolako loturarik zure ogibidearekin?

Ez; arkitekturarekin lotura duten argazkiak badituz, beste erakusketa bat egiteko lain, baina, kasu honetan, nire gustuko argazkiak erakutsi nahi izan ditut.

Horrelako lan bat aurrera eramateko, argazkilaritza gustuko izan behar...

Bai, oso, betidanik. 14 urte nituela jaso nuen lehen kamera eta beti ibili izan naiz argazkiak ateratzen. Garai batean garesti ateratzen zen argazkiak eskuratzea, baina, orain, digitalizazioarekin merkea da. Paperean irudikatzen, diapositibetara pasa ginen, eta hortik, digitalizaziora; prozesu horrek kostuak merkatzea ekarri du.

Paperean inprimatzen zirenean ere ezin izaten genuen jakin argazkia ondo atera genuen edo ez. Diapositibak iritsi zirenean, argazki gehiago ateratzen hasi ginen, eta, digitalizazioarekin, berriz, inolako arazorik gabe une bakoitzetik lau zapabost ere atera ditzakegu eta gorde, ondoren, horietatik guztietatik nahi duguna edo egokien atera dena aukeratu ahal izateko.

Zer erretratatzea gustatzen zaizu gehien?

Niri izugarri gustatzen zait urte sasoi ezberdinetan zuhaitzen garapena erretratatzea, hau da, udaberriean, udan, udazkenean eta neguan kokapen finko bat hartu, eta sasoi bakoitzean, hortik bertatik itxura erabat ezberdina duen figura berari argazkiak ateratzea. Zuhaitza, jeneralean, udazkenean egoten da politen; astetik atera kolorez aldatzen baitira bere hostoak.

Hasieran aipatu bezala, lane-rako argazkiak ere egiten ditut, baina hori beste kontu bat da. Eraikinak, eraikin dira eta horiei dagozkien argazki batzuk izaten dira orokorrak eta beste batzuk detaile gehiago erakusten dute; horiek ere gustatzen zaizkit.

Lau kamera badituz, eta segun eta zer irudi lortu nahi dudana, bat edo beste erabiltzen dut. Gaur egun ere sakelako telefonoek aukera onak eskaintzen dituzte. Azken boladan gailu horrekin argazki txukunak ateratzen ari naiz. Telefono mugikorra, gainera, sakelari daramagu, eta, edozein unetan edozein argazkia atera ahal izatea ahalbidetzen du, kamera gainean eraman behar izan gabe.

Teleobjektiboekin, adibidez, gutxiago ibiltzen naiz orain, astunagoak direlako eta soinean eraman behar direlako. Badut kamera txiki bat, zoom nahikoa duena eta argazki txukunak ateratzen dituen. Normalki horrekin eta sakelako telefonoarekin ibiltzen naiz ni.

Nolako izan da erakusketa prestatzeko prozesua?

Zailena hori osatu duten argazkiak aukeratzea izan da. Behin hau-

"GOGOKO DUT URTE SASOI EZBERDINETAN ZUHAITZEN GARAPENA ERRETRATATZEA"



Gaztetatik du argazkilaritzarako zaletasuna erakusketaren egileak. TXINTXARRI

taketa eginda, horiek nola kokatu nahiko erraz erabaki nuen, erraztasuna baitut aurrez nola geratuko diren irudikatzen.

Nik orain jarri dudak erakusketaren aurretik Maria Jesus Etxeberria usurbildarrarena egon zen ikusgai. Hark bereak nola jarri zituen ikusi nuen, eta zein tamainakoak ziren ere, eta horrekin, erabaki nuen zer-nolako tamainatan erakutsi behar nituen nireak. Irudi guztiak jatorriz digitalak direnez, horrek aukera ematen du erabakitzeke zein tamainan inprimatuko diren, baita zein materialean ere. Nik, gehienak A3 neurrian inprimatu ditut; guztiak hiru izan ezik. Horietako bat da Donostiako Paseo Berria erakusten duena; inprimatuta nuen, gustuko dudalako eta etxean nuen zintzilikatuta. Beste bietako bat da Igeldo menditik ateratakoa, eta, hirugarrena, berriz, Urgul eta Santa Clara uharte artean, *erregata* egun batean ateratzea lortu nuena.

Sortutako lanak erakusteko erakusle-aholku aproposa da Jalgi kafe antzokia? Zergatik?

Bai, erabat. Profesionalak ez garenok galeria batera joateko aukerarik ez dugu. Gauzak horrela, Jalgi bezalako lekuak horrelako ekimenak aurrera eramateko erakargarriak direla iruditzen zait; aukera ematen digute profesionalak ez garenok. Museoak edo kultur etxeak edo gisa horretako espazioak, gainera, hotzagoak iruditzen zaizkit.

Noiz arte izango da lan horiek ikustera joateko aukera?

Oker ez banago, oporraldia dela-eta, datorren astean Jalgi itxita egongo da, baina, dena ondo bidean, otsail osoan ere izango dute bertaratzen direnek *Ordu txikitako argi magikoak* ikusteko aukera.

Jalgikoaren ostean, baduzu beste inon erakusteko asmorik? Agian aukeraketatik kanpo geratu direnekin ere etor daiteke beste erakusketarik?

Erakusteko gehiago badauzkat, bai. Alabari argazkilaritzarekiko zaletasuna ere pasa diogu eta elkarrekin ere bagabiltza gauzatuak egiten. Berak aipatu dit elkarrekin erakusketak bat egitea gustatuko litzaiokeela, beraz, agian, hitz eginda, hori ere aurrera eraman dezakegu; ikusiko dugu. Bere argazkiak egiteko modua nahiko artistikoa da. Zuri-beltzean egiten ditu asko, eta beste mota bateko argazkiak ateratzen ditu, eta posible da, bionak batuta zerbait sortzea aurrerago. Oraingo honekin jendea gustura geratzen bada, etor daiteke berteren bat. Ni herritarra naiz eta ezagutzen naute. Erakusketaren harira, hiru herrikide etorri zaizkit lan polita egin dudala esanaz; eskertzen da egia esan. Nire nahia ez da irudi horiek saltzea, dena den, norbaitek baten bat nahi badu, bada, kopia bat egingo da, baina, hori ez da nire desioa, baizik eta nire bizipenak erakustea. Jendeak erakusketarekin gozatzea nahi dut, eta beldurrik gabe esan diezadate gustatu zaien edo ez. Etxekoek ere argazki batzuk gustuko izan dituzte, eta beste batzuk ez. Egunerokoan kalean goazela ikusten duguna ikusteko zenbait modu daudela erakutsi nahi izan dut. Lortzen badut jendea hortaz jabetzea, ni gustura.

"JENDEAK GOZATZEA ESPERO DUT ETA ESAN DIEZADALA GUSTATU ZAION EDO EZ"



OKENDO ZINEMA TALDEA

'Marco' filma, egileen eskutik

Hilabete honetako bigarren proiektzioa egingo du gaur (hilak 24) Okendo Zinema Taldeak, kultur etxe auditorioan, 20:00etan: *Marco* filma emango du 6 euroren truke. Eragile horretako kideek jakinarazi dute aretora etorriko direla Moriarti ekoizteteko kide

Aitor Arregi (zuzendarietako bat da, Jon Garañorekin batera) eta Joxe Mari Goenaga, emanaldiaren aurretik lana aurkeztera eta ostean ikus-entzuleekin hitz egitera. Etxe horrek Donostiako Urrezko Danborra jaso berri du.



TXINTXARRI

Santa eskean ariko dira

Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek jakinarazi dute santa eskean aterako direla otsailaren 4an, asteartean. Entsegu egun horretan bertan aurrera eramango dute euren lokalean (Sasoeta auzoan dago), 18:00etan, eta ordu erdi geroago ekingo diote

ibilbideari. Lasarte-Oriako zenbait tabernatan barrena ibili ostean baserri batzuetara joango dira eta Buenabista sagardotegian afalduko dute gero, 20:00ak aldera. "Animatzen den edozein etor daiteke gurekin", ohartarazi dute.

Kulturaren bidez adieraziko diote elkartasuna Palestinari

Donostiako Alderdi Eder parkeko ekitaldian parte hartuko dute Udal Musika Eskolako zenbait kidek

Txintxarri

Udal Musika Eskolako irakasle Miren Etxenagusien zenbait ikasleek Palestinari elkartasuna adierazteko ekitaldian parte hartuko dute bihar, hilak 25, Donostiako Alderdi Eder parkean,

12:00etatik aurrera. Kultura eragile eta eskola ugari batuko dira jardura horretan eta Palestinari elkartasuna adieraziko diete musikaren eta dantzaren bidez, Israeliek bertan egindako sarraskia salatzearekin batera, Geno-

zidua Stop! lelopean. Gauzak horrela, *Palestinaren zauria* (Juanxo Zeberio eta Jon Elizalderen lana da, Karlos Linazasorok idatzitako letrarekin) eta Mikel Laboaren *Txoria txori* kantatu eta dantzatuko dituzte, besteak beste.

Kulturatik izeneko eragileak antolatuta du arestian aipatutako ekimen hori; Palestinari elkartasuna adierazteko asmoz batu dira kultur gile ugari mugimendu horretan. Gipuzkoarrak deitu dituzte parte hartzera.



Elkartasun sareko kideetako bat, bi lasarteoriatarri informazioa ematen. TXINTXARRI

Otorduak prestatzeko behar dutena bildu dute

Berriki sortu dute Lasarte-Oriako Elkartasun Sarea eta hasi da lanean, Kaleko Afari Solidarioak ekimenari laguntzeko asmoz. Hilaren 28an Donostiara eramateko plater ugari prestatuko dituzte Okendo plazan jasotako elikagaiak baliatuta

Txintxarri

Donostiako Kale Afari Solidarioak egitasmoari laguntzeko asmoz, hogeitaherritarrek Lasarte-Oriako Elkartasun Sarea eratu dute berriki. Taldea ezagutarazi eta beren jarduna aurrera eramateko baliagarri izango duten materiala lortzeko, bilketa solidarioa egin dute Okendo plazan. Jasotako elikagaiekin hilaren 28ko gauean banatzeko jakiak prestatuko dituzte. Horrez gain, premia egoeran dauden pertsonen emateko neguko jantziak (txanoak, eskularruak...) ere eskuratu dituzte.

Lau urte daramatza boluntario talde batek Donostian kalean bizi diren pertsonen afaria banatzen. Gauero otordu bero bat ematen diete ia 300 laguni eta azken boladan beren jardunaren kriminalizazioa jasan dute. Laguntza behar dutela ikusita, zenbait lasarteoriatarrek esku bat botatzea erabaki zuten iazko urte amaieran. Ekimena aurre-

ra daraman boluntario taldearekin harremanetan jarri eta haien dinamika ezagututa, hila-beteko azken asteartean ardurarene gain hartzea erabaki zuten. Hori aurrera eramateko, ordea, baliabide eta elikagaiak behar dituzte: ogia, barazkiak, fruta, bestelako osagaiak... baita plastikozko poltsak, janaria garraiatzeko kaxak... ere. Ekarpena egin edo parte hartu nahi dutenei zabalik daude.

Informazioa banatzen aritu diren kideek azaldu dutenez, Kale Afari Solidarioak egitasmoari laguntzeaz harago, herritarrek saretu eta Lasarte-Orian bertan dauden gisa horretako beharrei erantzuten ahalegintzeko nahia ere badute.

HILABETE BAKOITZEKO AZKEN ASTEARTEETAN ELKARTUKO DIRA AFARI SOLIDARIOAK PRESTATZEKO

Elkartasun sareko kideek jakinaz dute ehun afaritik gora emateko elkartuko direla hila-bete bakoitzeko azken asteartean. Horrekin batera, Donostiako Udalaren jarrera deitoratu du: "Negu gorria da eta ez dute baliabiderik jarri kale egoeran dauden pertsonen beharrik asetzeko". Horregatik erabaki dute arropa eta urteko garai honetarako bestelako jantziak ere biltzea, afariak prestatzeko elikagaiez gain.



Jasotakoa, karrora sartzen. TXINTXARRI



Anbulatorioaren artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

Sorospen etxea jartzea adostu du udalbatzak, aho batez

Hil honetako ohiko saioa aurrera eraman dute; PPK aurkeztutako bi mozio eztabaidatu dituzte

Txintxarri

Azaroaren 7ko eta abenduaren 12ko bileretako aktak onartuaz ekin dio udalbatzak urteko lehen ohiko bilkurari. PP alderdiak aurkeztutako bi mozioetatik lehena eztabaidatu dute gero. Lasarte-Oriako udalerrian sorospen etxea jartzea eskatu du aipatu alderdiak, baina, horri, beste mozio transakzional bat aurkeztu dio PSE-EEk, eta azken hori izan da landu dutena. Hau da eskatu dutena: "Lasarte-Oriako Udaleko Osoko Bilkurak 2023ko apirilaren 20an egindako eskaera errepikatzen du, Lasarte-Oriako Osasun Zentroan larrialdiko arreta zerbitzua ahalik eta lasterren berriro irekitzeko".

Gaia bozkatu aurretik, EH Bildu mozio horri bigarren eskakizun bat gehitzeko eskaera eragin du; hilaren 25erako LOOPAK deitu duen manifestazioari atxikimendua ematea. Bi alderdiek onartu dute eskaera hori eta bozketa egin dute; aho batez onartu dute gaia.

Gai ordenako hirugarren puntuan ere PP alderdiaren mozio bat landu dute. Oraingoan, N-1 errepeidea lurperatzeko azterlana egitea galdegin du. Horri, PSE-EEk ñabardura bat gehitzeko eskaera egin du; lurperatzeko azterketa egiteaz gain, estaltzekoa ere gauzatzea. Onartu du proposamen hori alderdi popularrak, eta bozketa egin dute. Aldeko zortzi bozkarekin (PSE-EE eta PP), sei abstentzioarekin (EH Bildu

eta ELOP) eta aurkako bi bozkarekin (EAJ) aurrera egin du gaiak.

Galdera eta erreaguak, amaitzeko

Saioa amaitu aurretik, oposizioko alderdi EH Bilduk hainbat galdera eta erregu egin dizkio udal gobernu taldeari. Uxue Loinez aipatu alderdiko kidea hondakinen kudeaketaren gaiak mintzatu da; galdetu du edukiontziekin dagoen arazoa (apurtuta daude asko) irtenbide emateko ezer pentsatu duten, eta, horrekin batera, birziklapen tasei dagozkien datuen txostena osatuta duten.

Oihan Agirretzek hartu du hitza gero, eta Gizarte Zerbitzuen sailari erreferentzia eginez, erregutu die departamentu horren errealtatearen benetako diagnostiko bat egiteko, horrek "hobetu beharrekoak identifikatzea, saila indartzeko estrategiak diseinatzea eta eraldaketarako plana martxan jartzea" ahalbidetuko duela argudiatuz.

Asier Gorostegik, berriz, hainbat gairi buruz jakin nahi izan du. Hezkuntza departamentuari galdetu dio ea 2025. urteko udaleku irekien gaineko lehiaketa noiz argitaratzeko asmoa duen (eta hitzartze hori baliatu du, eskatzeko, iazkoen dokumentazioa kontratatzailearen profileen publikatzeke). Jaietako zinegotzi Txus Alonsori, aldiz, iazko Gabonetako ekimenak kontratu txikien bitartez kontratatu ote diren galdetu dio, eta, amaitzeko, Kirol sailari, Atso bakar kirol instalakuntzaren irekiera dela-eta, galdegin dio norbakoek edozein ordutegitan izango ote duten horren erabilera egiteko aukera.

Kairos Lasartekoen inziatiba aitortu dute

Udalerriko taberna-kafetegi horrek Emakumeek Gidatutako Enpresarik Onenaren Ekintzailatza saria irabaz dezake, beste lau establezimendurekin batera izendatua izan baita kategoria horretarako. Aintzatespen hori Urratsbat programak ematen du

Txintxarri

Elaiia eta Alazne Fadrique ahizpek 2023ko udazkenean zabaldu zuten Kairos Lasarte taberna-kafetegia. Urtebete pasatxoko ibilbidea urratu dute eta egunero-egunero ematen dute egiten dutenaren berri euren sare sozialetan. Azkeneko iragarpenetako bat izan da izendatuak izan direla Urratsbat Sarea programak ematen dituen sarietara; Emakumeek Gidatutako Enpresa Onenaren Ekintzailatza izeneko aintzatespena jaso dezake eta 2.500 euro poltsikoratu. Iazkoa Elgoibarko Barrutia Optikak irabazi zuen.

Urratsbat Sarea sustatzen du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren barruko Lanbide Heziketako sailburuordetzak. Era-kunde horren baitako Tknika izeneko zentroak koordinatzen du eta aukera ematen die Lanbide Heziketa egin duten ikasleei euren enpresak sortzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan 308 establezimendu eratzen lagundu du: 26 Araban, 108 Bizkaian eta 92 Gipuzkoan. Horrez gain, EAEtik kanpoko beste zortzi ere badaude. "Elkar-tze eta lankidetzak kultura" bul-tzatzen du proiektu horrek, "en-presen lehiakortasuna hobetzeko". Langileek hamar urte baino



Elaiia eta Alazne Fadrique ahizpak dira Kairosen jabeak. TXINTXARRI

gehiago daramatzate lanean eta "Euskal Autonomia Erkidegoko ekintzaileentzako erreferente bihurtzea" da beraien erronka.

Kairos hautagai den kategoriaz gain beste lau daude: Teknologia eta Industria Alorretako Enpresa Onena, 25 Urtetik Beherakoek Gidatutako Enpresa Onena, Baloreei Buruzko Proposamen Onena egiten dutenena (enpresak) eta Baloreei Buruzko Proposamen Onena egiten dutenena (kooperatibak edo lan sozietate batek martxan jarri badu jarduera ekonomikoa).

Iruzur saiakerak

Udalak jakinarazi du pertsona bat taberna batzuetan ibili dela udaletxeko langile plantak egiten eta jabeek ordaintzeko eskatzen, negozioak ixtearen mehatxupean. "Tasa, zerga eta antzekoak ez ditugu eskudirutan kobratzen, ezta ere presentzialki", oroitu du.



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Kiratsa darior

Blue Monday pasatu berri dugu, urteko egunik tristeena. Eguraldia, urtarrileko aldapa, oporretatik oporretara falta den tarte... hainbat faktore erabili dituzte urtarrileko hirugarren astelehena urteko egunik tristeena dela ondorioztatzeko. Ostirala heldu da, baina, eta oraindik ez naiz nire onera itzuli.

Blue Mondayn izan da Donald Trumpen kargu hartzea. Ekitaldi bitxi eta surrealista horretatik Melania Trumpen txapela, Hillary Clintonek eutsi ezin izan dion barrea, Mark Zuckenbergren begirada lizuna, eta nola ez, Elon Musken agurra izan dira hizpide. Norbaitek ordura arte zein egurretako ezpala zen ez bazekien, zalantza guztiak uxatu ditu berehalakoan. *Berria*-ko Telegrameko kontuan fin aritu dira beste behin ateraldi honekin: 'Hi, nondik zetorrek kirats hori?' 'Ez al duk aditzen?', *Esfortzuaren Lurrina* deritzo'. 'Musker halakoa, jaitsi ezak besoa! Hori kiratsa!'

Hori da, hain zuzen, kiratsa, tristurarekin batera aldendu ez dena. Kiratsa dator AEBetatik, kiratsa dator Madrildik, Iñigo Errejonen kontrako (agian ez da hitzik aproposena) epaiketarik. Epaileak Elisa Mouliari egindako galdeketak epailearen partzialtasuna eta matxismoa agerian utzi ditu. Puzker batekin konparatuta, ez da bakarrik ez duela *disimuluan* egiterik lortu; are gehiago, izugarritzko zaratarekin kanporatu du, eta oraindik kiratsa gainetik kendu ezinik gabiltza.

Zenbat gustatuko litzaidakeen titiak miazkatzen zenbat denbora pasatu zuen eta antzeko galderak jaurtitzen ari zen momenturen batean galdeketa gelditu eta Mouliak erantzun izan balio: "Begira, une honetan Iñigo Errejonekin nengoenean bezala sentitzen naiz, jazarrita, eta ez baduzu bien arteko lotura ulertzen epaiketa honek ez du ez buru ez hankarik". Ambi-pur poto osoa gainean hustea bezala izango zen.

Beharko dugu, bai, aire lurrina kiratsa darion faxismo, matxismo eta atzerakoitasun isuriarekin bizirauteko. Blue Monday honek luze iraungo duelakoan nago...

Fede kristauari buruzko formakuntza bilerak, ekainera arte

Lasarte-Oriako Kristauen Elkarteak jakinarazi du formakuntza saio batzuk emango dituela Felix Garitano kapilauak hilabete honetatik hasi eta ekainera arte, *Fede heldu baterantz*

lelopean. Topaketa horiek hil bakoitzeko azken asteartean izango dira (hilaren 28tik ekaineraren 24ra), San Pedro parrokiako gela nagusian (Kale Nagusia, 23), 18:00etatik aurrera. Horietan parte hartu nahi dutenek nahikoa izango dute adierazitako hitzordu horietara bertaratzearrekin.

TXINTXARRIK KAZETARIA BEHAR DU

Ostiraletatik igandetara lan egiteko

• Kontuan izango ditugunak:

- Kazetaritza, Komunikazioa edo pareko ikasketak.
- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea (gutxienez C1 maila izatea).

- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea, edizio programak...
- Argazkilaritza eta bideogintza ezagutzak izatea.
- Lasarteoriatarra izatea edo herria ezagutzea.

Curriculumak urtarrilaren 26ra bitarte jasoko ditugu helbide elektroniko honetan:
txintxarri@ttakun.eus

txintxarri



Beste gai bat proposatu dute Inauterietarako

"Genero berdintasuna, euskara, eta, batez ere, kontsumo eredu jasagarri batetik eratorritako" festa eredu aldarririkatu du Sorgin Jaiak eragileak eta herritarrak animatu ditu euskal ikus-entzunezkoetan oinarrituko diren mozorroak prestatzera

Txintxarri

Proposamen horren bidez "bertakoari" eman nahi diote garrantzia. Euskal ikus-entzunezkoetatulertzen dituzte "Euskal Herrian ekoiztuak" izan direnak, "euskaldunek sortutakoak edota euskaraz egin direnak". Adibide batzuk eman dituzte: film laburrak nahiz luzeak, telesailak, musikarien bideoklipak, antzerki zein dantza emanaldiak, bertsoari, marrazki bizidunak edota animazioak. Horiez gain, barnebildu dituzte baita ere Euskal Herritik kanpo sortuak izan direnak eta euskarara itzuliak izan direnak, izan ere, "itzulpengintzak izugarriko lana egiten du kanpoko ikus-entzunezkoak gurera ekartzeko eta guztiok horiez gozatu ahal izateko, euskaraz". Hortaz, mozorrozko baliagarriak izan daitezke euskaratuak izan diren film, telesail edota animaziozko saioak.

Inauteri astebururako (egun handia martxoaren 1a izango da, larunbata) mozorroak prestatzeko zeinbat gomendio eman ditu Sorgin Jaiak. "Erabiliko dituzuen jantziak etxean dituzuen oihal, arropa zahar edota bigarren eskuko arroparekin egitera animatzen zaituztegu, eskuz egiteak berezitasuna eta xarma emango dielako mozorroei, eta, gainera, kontsumo



'Doraemon' euskaraz ikusi bitartean hazi dira herriko belaunaldi ugari. TXINTXARRI

eredu arduratsua babestuko dugulako".

Herriko jai eredu alternatiboa eta beste zenbait ekimen aurrera eramaten dituen eragileak egin izan du horrelako proposamenen inoiz: 2022an, esaterako, lanbideak oinarri hartuta mozorrozko animatu zituzten herritarrak.

Euren sare sozialetan eta WhatsApp kanalean zabaldu dute sorginek martxoaren 1erako proposamena. Halaber, inspiratzeko baliagarriak izan daitezkeen zenbait ikus-entzunezko

eta artistaren lana zabaldu dute: Izaro Andres musikariaren *Cerodenero* albumaren bideoklipak; Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren *Poxpolin Marisorgin* lana; *Kutxidazu bidea*, *Isabel*, *Irati* nahiz *Black is beltza: Ainhua* filmak; edota euskarara itzulia izan zen *Behi eta oilasko* telesail animatua.

Parte hartze prozesu bat egin zuen udalak gaia aukeratzeko eta Disney izan zen boto gehien jaso zituena, 133. Fantasia/Mitologia (123) eta Zirkua (105) izan ziren beste aukera batzuk.

Herriko osasun zentroan beste mediku postu bat dago hutsik

LOOPA plataformak mobilizatzen deitu ditu herritarrak bihar, hilak 25, 'Non daude gure medikuak?' lelopean

Txintxarri

Lasarte-Oria Osasungintza Publikoaren Alde (LOOPA) plataformak mobilizatzen deitu ditu herritarrak, *Non daude gure medikuak?* lelopean aurrera eramango duten manifestazioa-

ren bidez. "2025eko urtarrila da eta ez da bakarrik agindutako tokiak ez dituztela bete, gainera, beste bat gehiago hutsik geratu da, medikua jubilatu egin delako", jakinarazi dute eragile horretako kideek. "Ho-

rren aurrean, kalitateko osasun publikoa eta lasarteoriatar guztiek lehen arretako medikua izateko eskubidea defendatuko ditugu". Ekintza hori bihar (hilak 25) izango da, 12:00etan; manifestariak osasun zentro paretik abiatuko dira.

Iazko udaberrian hasi zen plataforma hori aldarriak Lasarte-Oriako kaleetan barrena zabalzen; manifestazio oso jendetsu bat egin zuten apirilaren 12an eta baita beste zenbait mobilizazio ekintza ere.



Hitzik gabe, keinu bidez eta zenbait soinu baliatuta kontatutako istorioa da. TXINTXARRI

Gerrari buruzko hausnarketa egin dute, umoretik

Markeliñe antzerki konpainiak 'Zepo Zapo' antzeztanaren emanaldia egin du kultur etxean

Txintxarri

Gerra eta adiskidetasunari buruzko *Zepo Zapo* antzeztanaren emanaldia egin zuen Markeliñe Teatrok hilaren 18an Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Gerrara bidalitako bi neskatok topo egingo dute frontean, eta gatazkaren erantzuleen arabera etsaiak direnez, elkarren beldur dira biak. Jantziak edota jarrera desberdinak badituzte ere, ordea, oso antzekoak dira.

Obrak aurrera egin ahala, kumunean duten horrek elkartuko ditu eta lagun egingo dira. Hitzik gabe, keinu bidez eta zenbait soinu baliatuta kontatutako istorioa da, eta gaia gordina bada ere, umoretik joaz. Konpainiak duela 25 urteko sortutako *Mamburu* antzeztanaren berrinterpretazioa da eta horrekin ari dira beraien 40. urteurrena ospatzen, izan ere, 1984tik ari dira hango eta hemengo ikus-entzuleak "an-

tzerki bisualetik eta jatorrizko hizkuntzatik hunkitzen", <https://www.markeline.com> webgunean nabarmendu duten bezala.

Datozen emanaldiak

Otsailetik maiatzera aurrera eramango dituzte bira berezi horretako hurrengo emanaldiak: otsailaren 7an, 8an eta 9an Bizkaiko udalerririk Berriz, Mungia eta Leioan antzertuko dute. Ia astebete geroago Gipuzkoara itzuliko dira, *Zepo Zapo* Arrasaten erakustera.

Aste Santuko oporralditik bueltan, oraingoz behintzat, beste bi saio dituzte lotuta Markeliñe konpainiako kideek. Apirilaren 29an Eibarren ariko dira, eta maiatzaren 16an, Lezon.

Bestalde, hilabeteko kultura agendak aurrera darrai eta hurrengo antzeztana Artedramaren *Miñan* izango da, bihar (hilak 25), kultur etxean, 20:00etan.



Osasun zentro paretik abiatuko dira manifestariak. TXINTXARRI

KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA



BARNE-DISEINUA

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
 - HORMA-ARMAIRUAK
 - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361471
www.sugatecocinas.com



ELEKTRIZITATEA

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

GRE MI OAK



IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66

Kadeteek Euskal Ligako igoera eskuratu dute

Ostadar Saskibaloia ataleko Kadete Errendimendu Urrea taldeak Antigua Luberri eta Askatuak Yoga Shala garaitu ostean, sailkapen faseko txapelkun izan da. Junior eta Kadete Errendimendu Zilarra ekipoek ere maila igoera jokatu dute

Txintxarri

Zirrara handiko jardunaldia bizi izan zuten Ostadar SKTko saskibaloit taldeek hilaren 18an eta 19an. Hiru ekipoek igoera izan zuten jokoan –Junior Errendimendu Zilarra eta Kadete Errendimendu Urrea zein Zilarra– eta kadete erreko kideak izan ziren balentria ederra lortu zutenak, Euskal Liga jokatzera.

Jonatan Reinok zuzentzen duen Ostadar taldea Antigua Luberri, Yoga Shala Askatuak eta Andraitz KE taldeekin batera sailkatu zen lauko finalera. Entrenatzailearen hitzetan, sailkapenari konfiantzaz egin zioten aurre jokalariek: "Neurketa guztiak irabazi genituen lehen fasean eta forma fisiko onean iritsi ginen igoera jokatzera".

Lehen kanporaketa Antigua Luberriren aurka jokatu zuen hilaren 18an talde-urdirin beltzak Maialen Chourraut kiroldegian.



Ostadar eta Antigua Luberriko jokalariek, lehen. TXINTXARRI

Nagusitasunez, 69-24 gaitzitu zuten etxekoek Donostiako taldea eta hurrengo egunean jokatu zuen finalerako txartela ere eskuratu zuen. Reinok azaldu duenez, "Luberri Gipuzkoan harrobia ederki lantzen ari den taldeetako bat da. Sailkapenera baja ugari-

rekin etorri zen eta horrek gure alde jarri zuen neurketa".

Finala ere etxean lehiatu zuen Ostadarrek Donostiako beste taldearen aurka, Yoga Shala Askatuak; aurkariak ederki borrokatu behar izan zuten euren kanporaketan Andraitz garaitzeko, 59-57.

Euskal Ligarako bidean, azken urratsa ere ederki gaitzitu zuen kadete taldeak, 64-47. Reinok azaldu duenez, "Askatuak gure aurkari zuzena izan da lehen fase osoan zehar eta ez da erraza eurei irabaztea". Lehen laurdenean aurre hartu zion Donostiako taldeari eta neurketa osoan zehar alde handitzen joan zen; 19-11, 13-7, 17-10 eta 15-19 izan ziren partzialak.

Maila berria

Ostadar SKTko prestatzailea pozarren dago sailkapenean egindako lanarekin eta garaipenari esker, otsailean maila berriari egingo dio taldeak, Euskal Ligari. A-2 multzoan lehiatuko da eta maila mantentzeko lehen bi postuetan sailkatu beharko da talde urdirin-beltza.

Reino eta kadete taldearentzat erronka ederra izango da prestatzaileak onartu duenez: "Ez da erraza izango, baina jokalarientzako eta hobetzeko duten gaitasunean uste osoa dugu. Lasarte-Oriako taldetxo batek izan dezakeen indarra erakutsi behar dugu".

Era berean, Euskal Ligarako igoera klubaren lorpena dela gogora ekarri du: "Azken urteetan egiten ari den lan onaren isla da igoera hau. Nik lorpena disfrutatzeko zortea izan dut, baina aurreko urteetan taldearekin lan egin duten Endika, Aimar, Nahia eta Aitor entre-

natzaileei esker iritsi da talde duen mailara".

Ezin igoera lortu

Aipatu moduan, ez zen igoera jokoan zuen talde bakarra izan; junior eta kadete errendimendu ilar mailako taldeek ere urrea kategoriara jauzia egiteko sailkapen fasea jokatu zuten. Ezin izan zituzten euren aurkariak gaitzitu eta zilar mailako fase erregularra jokatu dute.

Junior mailan, Ostadar SKT Bera Bera Rikardo taberna izan zuen aurrez aurre, Manteo kiroldegian, Donostian. Donostiarrak nagusitu ziren neurketaz hasieratik eta talde urdirin-beltzeko kideek ezin izan zuten ezer egin. 54-26 amaitu zen partida.

Azpeitian izan zuen sailkapen lehia kadete zilar taldeak. Etxaniz Autoeskola ISB izan zuen aurkari eta etxekoek 41-22 irabazi finalerako txartela eskuratu zuten.

Gainerako taldeak

Federatu mailako gainerako taldeek ere ez zuten zorterik izan euren lehiatan.

II. senior mailako kideek AZ Casa La Riojaren aurka lehiatu zuten etxean eta donostiarrak gailendu ziren, 56-81.

Zast Bollicaok ere gauza bera egin zuen Kadete partaidetza mailan; 37-47 irabazi zion Ostadarri.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Bergara KE Igandea. 15:40. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Amara Berri KE Larunbata. 18:25. Michelin kirol gunea.
OJM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Martutene KE Larunbata. 16:30. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Bergara KE B - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Agorrosin, Bergaran.
OKM, JAITSIERA
Orioko FT - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Mendibeltz, Orion.
K. I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Lengokoak SD B Larunbata. 14:45. Michelin kirol gunean.
Touring CD B - Ostadar SKT (neskak) Larunbata. 11:00. Fanderia, Erreterian.
Zarautz KE D - Texas Lasartearra CF Igandea. 11:15. Asti-Txiki, Zarautzen.
K. I. MAILA, UDABERRIKO K.
Ostadar SKT C - Arrupe Chaminade CDDF E Igandea. 13:55. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Lauburu KE Ibarra Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Egintza KE B Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Aldapeta Maria Ik. - Eguzki Bod. Ayesa Igandea. 12:00. Aldapeta Maria ik., Donostian.
KADETE MAILA
Laskorain KE A - Eguzki Goxokis Goxua Larunbata. 12:00. Usabal kirol., Tolosan.
SASKIBALOIA
III. MAILA
Antigua Luberri KE - Ostadar SKT Larunbata. 20:00. Benta Berri kirol., Donostian.
INFANTIL PART. HANDI
Ostadar SKT Urdina - Milar Laramendi ISB Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Aresko Gorria - Ostadar SKT Beltza Igandea. 09:30. Manuel Muñoz kirol., Eskoriatzan.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Ostadar SKT - Univ. de Navarra

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Aidean Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Aldapeta Maria berdeak - Ostadar SKT A Larunbata. 09:00. Aldapeta Maria ik., Donostian.
Gorri A - Ostadar SKT B Larunbata. 11:00. Aldiri kirol., Urreburun.
INFANTIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Mayumi 3 Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA
UDABERRI, NAGUSIEN I. MAILA
Intza - Aretxabaleta Larunbata. 10:15 (2. partida). Michelin kirol guneke pilotalekuan.
UDABERRI, GOMAZKO P. NAGUSIAK
Intza - Aia 2 Larunbata. 10:15 (1. partida). Michelin kirol guneke pilotalekuan.
TRINKETEIA, NAGUSIEN II. MAILA
Intza (Solano) - Hernani (Arazmendi) Larunbata. 15:30 (1. partida). Ametsa tr., Iruran.
Intza (Olazabal) - Hernani (Jara) Larunbata. 15:30 (2. partida). Ametsa tr., Iruran.

ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
Oiarpe 2 - Intza Ostirala. 18:00 (1. partida). Madalensoro, Oiarzunen.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Behar Zana Larunbata. 18:30 (2. partida). Loidibarren pil.
ESKUZ BINAKA, ALE. I. MAILA
Intza - Aizkorpe 3 Larunbata. 18:30 (1. partida). Loidibarren pil.
ESKUZ BINAKA, ALE. II. MAILA
Mundarro - Intza Ostirala. 18:00 (1. partida). Txominñene, Astigaragan.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Blendio Cormoran RC Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Kanpazar Arrasate RT - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:03. Mojategi, Arrasaten.
18 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Durango Smurfit Kappa RT Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.
16 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Txinbaz

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
IGERIKETA
ALEBIN TEKNIF. SARIA
Buruntzaldea IKTKo alebin mailako Kerman Miguel eta Aitor Ormazabal igelariak teknifikazio sarian parte hartuko dute. Igandea. 18:00. Usabal kirol., Tolosan.
ATLETISMOA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Lasarte-Oriako atletik pista estaliko Euskadiko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Antonio Elortza Bel., Donostian.
XAKEA
II. MAILA
Beraun Bera B - Taula A Larunbata. 16:00. Erreterian.
III. MAILA
Taula B - Hondarribia Maritaxa D Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
GAZTEEN TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketako hirugarren jardunaldiari jokatu dute. Igandea. 10:00. Karmelo Balda pil., Donostian.

Atletek, sei domina Gipuzkoako txapelketan

Lasarte-Oriako atletek maila absolutuko Gipuzkoako txapelketa lehiatu dute. Ostadar SKTko Eider Redondo eta Oihana Igarriz eta Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz garaile izan dira euren probatan. Ez dira podiumera igo diren herritar bakarrak izan

Txintxarri

Hiru urre, bi zilar eta brontzezko domina bat. Hori izan da, Lasarte-Oriako atletek absolutu mailako Gipuzkoako txapelketan eskuratutako uzta. Gipuzkoako zein Bizkaiko lehiaketak jokoan, bi lurralde horietako kirolariak bildu ziren Donostiako belodromoan hilaren 18an. Lasarte-Oria ederki ordezkatu zuten: Ostadarreko atletismoko hamabost kidez gain, Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz eta Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi ere aritu ziren. Talde urdin-beltzeko kideak lau alditan igo ziren podiumera; Veroniz eta Eugi ere izan ziren lehen postuetan.

Ostadarreko Eider Redondo gaztea izan zen domina gehien jantzi zituen herritarra. Urrezko eta zilarrrezko garaikurrak eskuratu zituen; biak jauzi probetan. Azken saiakeran 5,39 metro egin eta luzera jauzian txapelketa izan zen. Altuera jauziko proban ere ederki borroka-



Eider Redondo, podiumean. G. REDONDO

tu zen azkenera arte, ezin izan zuen 1,56 metroko langa igaro eta 1,53 metroekin bigarren izan zen.

Pisu jaurtiketan lortu zuten herriko taldeak bigarren urrezko domina. Oihana Igarrizek 10,59 metroko jaurtiketa behar izan zuen Gipuzkoako txapelketa titulu eskuratzeko.

Eta jauzi hirukoitzean batu zuen bigarren zilarra Ostadarrek. Zehazki Oinatz Almagrok lortu zuen bigarren postua, azken saiakeran 13,30 metrora iritsi ostean.

Aipatu legez, ez ziren horiek izan podiumera igo ziren herritar bakarrak. 60 m. lasterketan hiru herritar izan finaleran eta bi lehen hiruren artean sailkatu ziren. Gizonetako mailan, Yeray Veronizek urrezko domina jantzi zuen 6,98 markarekin. Aurretik finalerdian bere denboraldiko marka ondu zuen 6,92 eginez.

Emakumezko mailan, aldiz, Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi hirugarren izan zen (7,84) eta Ostadar SKTko Iraia Alkortak zortzigarren postuan (8,10) amaitu zuen lasterketa.

Ez zuten garaikurrak lortu, baina markak ere ondu zituzten talde urdin-beltzeko kideak, hala nola, June (01.47,23) eta Erin Iruretagoyena (1.47,68) ahizpek 600 m. proban; edo Maider Abetek (8,24), 60 m. lasterketan.

Eta herriko atletek pista estaliko garaikur poltsa handitzeko aukera berria izango dute hilaren 25ean eta 26an, Euskadiko txapelketan.

Fase erregularrari agur esan diote erregional eta jubenilek

Erregionalen derbia nabarmendu da azken jardunaldian. Ostadar SKTk 4-1 irabazi dio Texas Lasartearra CFri

Txintxarri

Erregional I. mailako Ostadar SKT eta Texas Lasartearra CF taldeek derbia jokatu amaitu dute euren kategoriako fase erregularra.

Partida borrokatua izan zen Michelin kirol gunean hilaren 18an jokaturakoa. Azken jardunaldiari aurre egin baino lehen, argi zuten bi taldeek euren multzoko taularen erdialdean sailkatu –Texas laugarren zen eta Ostadar SKT bosgarren– eta igoera jokatzeko aukerarik ez zutela. Baina hamahiru jardunaldi jokatu ostean, bi taldeen artean bi puntuko aldea besterik ez zegoen.

Talde urdin-zuria markagailuan aurreratu eta neurketan zehar aukera ugari sortu arren, ekipu urdin-beltzeko markagailuari itzulia eman zion lehen zatia amatu baino lehen eta bigarren zatian, beste bi gol egin zituen hiru puntuak poltsikora eramateko.

Epailearen azken txistuarekin bat neurketa hasierako postuak trukatu zituzten herriko taldeek; Ostadar SKTk laugarren postura igo zen eta Texas bosgarrenera jaitsi zen. Hurrengo fasean,



Erregional mailako derbia. TXINTXARRI

kopa jokatu dute herriko bi taldeek.

Fase berria

Ez da erregional maila fasea amaitu duen kategoria bakarra izan; jubenil I. mailako ordezkariak ere eman diote amaiera lehia erregularrari. Texas Lasartearra-ko ordezkariak euren neurketak irabazi zituzten Mundaiz (1-3) eta Usurbilen aurka (2-1); Ostadarrek, aldiz, 4-1 galdu zuen Urnietan.

Otsailetik aurrera, fase berriari ekingo diote hiru taldeek. Texas Lasartearra B taldeak igoera izango du jokoan, A taldeak kopa eta Ostadar SKTk, aldiz, Udaberriko kopa.

Alebin eta benjamin igerilariak ederki jardun dira Tolosan

Alebin hainbat marka ondu dituzte ligako hitzorduan. Benjaminek euren ikaskuntza aurrera doala erakutsi dute

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilari gaztetxoek hitzordu bikoitza izan zuten Tolosako Usabal kiroldegian.

Alebin mailako zazpi kide izan ziren lehenak igerilekura jauzi egiten. Ligako hirugarren jardunaldia 200 m. bizkar probarekin hasi zuten gaztetxoek eta marka hobekuntza "nabarmenak" egin zituzten. Bular estiloko 50 metroko proba izan zen hurrena: "Asko landu ez arren, igeriketa erak ez ziren batera txarrak izan". Jardunari amaiera emateko 40x50 m. lau estilo erreleboari egin zitoten aurre.



Alebin taldea. BURUNTZALDEA IKT

Lortutako marka guztien artean, aipatzekoa da Aitor Ormazabalak Udarako Euskal Herriko gutxienezko egin zuela bizkar estiloko 200 metroko proban, 02.48,43.

Eta gaztetxoek amaitzean, benjaminen topaketa burutu zen. Buruntzaldea IKTko hamabi haur izan ziren lehen 50 m. eta 100 m. bizkar probetan. Estilo libreko 6x25 m. errelebo mistoa ere jokatu zuten.

Igeriketa taldeko prestatzaileek azaldu dutenez, arautegiaren inguruko ezagutza, estiloen ikaskuntza eta igeri egiteko moduari ematen diote garrantzia maila horretan: "Guztiak txukun eta lasaitasunez igeri egiteaz gain, arautegia ondo betez aritu ziren, eta, beraz, oso gustura gaude gure txikiek egindakoarekin".

Bai alebin, bai benjaminek hurrengo hitzordua Lasarte-Oriako Maialen Chourraut igerilekuan izango dute, otsailaren 15ean. Bien bitartean, hilaren 26an, Aitor Ormazabal eta Kerman Miguel Alebinen Teknikifikazio Sarian lehiari izango dira.



TXINTXARRI

Areto futbolaz gozatzen

Eguzki Areto Futbola klubaren eskolako kideek topaketa izan zuten Michelin kirol gunean hilaren 19an. Antiguoko KE eta Lauburu KE Ibarra taldeetako kideekin bat egin zuten jardunaldian. Beroketak egin eta neurketa batzuk jokatu zituzten. Bestalde, eskolako 11 kidek 12 eta 14 urtez azpiko Euskadiko selekzioko deia jaso dute, Donostiako Deusto unibertsitatean hilaren 23an entrenamendu saioa egiteko.

Boleibol taldeek, denetariko emaitzak

Ostadar Boleibola saileko ordezkariak Gipuzkoako zein Euskal Ligako hitzorduari egin diote aurre hilaren 18an eta 19an. Talde urdin-beltzeko ordezkariak etxean zein kanpoan euren onena eman duten arren, emaitza ez da aldekoa izan guztientzat

Txintxarri

Kadete mailako Gipuzkoako txapelketako bi hitzorduz gozatu ahal izan zuten herriko zaleek hilaren 18an, goizean. Mihise batek banatuta Ostadar SKTko bi taldeek ligako euren hitzorduari egin zioten aurre Maialen Chourraut kiroldegiko pistan.

A taldeak Ipar Titanak izan zuen aurkari. Ederki saiatu arren, etxeko taldeak ezin izan zuen setik eskuratu eta Donostiako taldea nagusi izan zen hiru jokotan (17-25, 11-15 eta 13-25).

Mihisearen beste aldera Aldapeta Mariari egin zion aurre B taldeak eta partida horretan ere ez zuten zorterik izan talde urdin beltzeko kideek; Donostiako ikastetxeko ordezkariak 3-1 irabazi zuen.

Denetariko emaitzak

Ostadar Boleibola saileko gainerako taldeek txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten kanpoan lehiatan.



Ostadar SKT, erasoan. TXINTXARRI

Tolobolei 1en aurka neurtu zituzten indarrak infantil taldeak Tolosan; 3-0 (25-6, 25-16 eta 25-12) galdu zuten urdin-beltzek.

Donostian lehiatu ziren jubnilak Fortuna 1 taldearen aurka. Lehen bi setetan urdin-beltzak 11-15 eta 13-25 gailendu ziren arren, hirugarrenean ederki

borrokatu ziren donostiarrak garaipena lortzeko, 27-25. Azken jokoa erakutsi eta 12-25 irabazi zuen.

Eta neurketarik galdu gabe jarraitzen du Euskal Ligako II. mailako taldeak. Asier Acuriolaren jokalarien nagusitasun osoz lortu zituzten garaipeneko puntuak Iruñean (Nafarroa); Navarra Villoslada taldea 0-3 (14-25, 9-25 eta 13-25) garaitu zuen.


Liga erregularra amaitzeko hiru jardunaldi falta ditu boleibol ataleko lehen taldeak eta bere multzoko buru mantentzeko erabakigarriak izango dira. Hurrengo bi asteetan etxean jokatuiko ditu hitzorduek; lehena hilaren 25ean, 18:00etan Universidad de Navarraren aurka eta bigarrenean Galdakoa BT izango du aurkari, otsailaren 1ean, 18:00etan. Eta otsailaren 8an, Logroñon (Errioxa) izango du lehen faseko azken neurketa.



TXINTXARRI

Yurramendiri, agur bikoitza

Hilaren 18an, Iñaki Yurramendi *Pikolo* agurtu zuten senide eta lagunek Gure Etxea tabernan elkartuta. Eguerdian bildu ziren urte luzetan Yurramendiren taberna izandakoan, bere alde topa egin eta hamaiketako egiteko. Parte izan zen Beltzak Errugbi Taldeko lagun ugari izan da bertan eta mahai gainean jarri dute taldearen armarrak. Errugbi zelaian ere izan zuten gogoan Yurramendiri. Gipuzkoa Sortzen zein Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeek asteburuan jokatu zituzten partidetan minutu bateko isilunea egin zuten.



CAJA RURAL-ALEA

Carbayedak, lau denboraldi

Caja Rural-Seguros RGAk 2025. urteko taldea aurkeztu zuen hilaren 21ean, Iruñeako (Nafarroa) El Toro hotelean. Lehen taldearekin batera harrobia duen Caja Rural ALEA ere igo zen oholtzara eta horiekin batera, kide den Befa Carbayeda herritarra. Lasarteoriarrak laugarren urtea egingo du Nafarroako taldean. Elite eta 23 urtez azpiko egutegia lehiatuko du, hala nola, Nafarroako itzulia, Bidasoako itzulia edo Espainiako kopako probei egingo die aurre. Carbayedaz gain, Iñigo Altuna herritarra ere Caja Rural-Seguros RGAko talde teknikoan egongo da denboraldian zehar.

Ikastaro eta irteerak

Ostadar Ipar Martxako kideek urteko lehen ikastaroa aurrera eramane zuten hilaren 18an. Hamabi pertsonak parte hartu zuten hastapen saioan eta horietako batzuk kirol modalitate horretan euren lehen urratsak eman zituzten.

Horrez gain, ipar martxa taldea, euren irteera egutegiari jarraipena emateko, Deba-Ondarru ibilbidea



OSTADAR IPAR MARTXA

egitekoa zen hilaren 25ean. Eguraldia dela-eta, ekimena atzeratu behar izan duela jakitera eman dute kideek.

Taula Xake Klubeko kideek jardunaldi ona izan dute

Gipuzkoako Ligako bigarren hitzorduan, Taula A eta B taldeek euren aurkariak gainditu dituzte

Txintxarri

Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten hilaren 18an Taula Xake Klubeko kideek.

Oraingoan Salto Bidasoa taldeko bi aurkari izan zituzten aurrez aurre. II. mailako A taldeak etxean, Blas de Lezo kaleko lokalean jokatu zuten Salto Bidasoa C taldearen aurka eta B taldeak, aldiz, Irunera egin zuen bidaia II. mailako Salto Bidasoa Dren aurka lehiatzeko.

A taldeko kideak ederki borrokatu ziren lehia ezberdinetan.



Jokariak, lehian. TXINTXARRI

Miguel Maria Barojak eta Erlantz Sanchezek garaipena erdietsi zuten, Jose Ignacio Echeverriak


berdinketa eskuratu zuen eta Pablo Arrondok ezin izan zuen punturik eskuratu. Ondorioz, neurketa 2,5-1,5 amaitu zen eta lehen bi jardunaldien ostean, bere multzoko hirugarren da herriko taldea.

Irunen nagusi izan zen Taula B taldea; kide guztiek –Juan Cruz Figueras, Alejandro Sanchez, Juan Luis Varela eta Unai Grado– euren aurkaria gainditu zuten. Lau puntuak esker, B multzoko sailkapen buru jarri da Lasarte-Oriako taldea.

Egun bat geroago, Erlantz Sanchez taldekide gazteak Gazteen mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren hitzordua izan zuen, Donostian.

Danel Artola irundarra izan zuen aurkari eta parra egin zuten.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke.

Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak

emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matriculatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

batu txintxarri kanalera!

OTSAILAK 1 Larunbata
IPARRERA BEGIRA
ORBELDI dantza taldearen emanaldia
Ordua: 19:00 Non: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da

OTSAILAK 8 Larunbata
ITOIZ UDAKO SESIOAK
Film emanaldia
Ordua: 19:00
Non: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: 6€ (Bazkideek 4€)

OTSAILAK 2 Igandea
ITZAL (IKO) BAGINA
Ikuskizuna
Ordua: 18:00
Non: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)

OTSAILAK 7 Ostirala
ANIMO
Film estrenaldia
Ordua: 19:00
Non: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da

OTSAILAK 9 Igandea
MIÑAN Antzerkia
Ordua: 18:00 Non: Sutegiko auditorioan
Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)

Sarrerak eta gonpidapenak: usurbilkultura.eus webgunean edo Noaua!ko egoitzan egongo dira eskuragarri

Antolatzailea: Laguntzailea:

NOAUA! Kulturaldia 2025

SUDOKUA

	5	6					3	
		7		6	9			
		2		5		6	7	8
	8		6		3			
	3	1	9		2			6
2	6		7		5		9	3
		3		2	6	5	1	9
6				9			4	7
9				3				

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 24	KNIESE
LARUNBATA, 25	DE ORUE
IGANDEA, 26	DE ORUE
ASTELEHENA, 27	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 28	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 29	LASA
OSTEGUNA, 30	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9
 behe, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
 webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integrala garatzeko bilera irekia

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du parte hartze prozesu "ausart" bat abiatu duela, herritarrekin batera garatzeko Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integrala (IUPI). Hilaren 29an aurrera eramango du lehenengo bilera irekia, kultur etxeko hitzaldi aretoan, 18:00etan. Ekimenari buruzko informazio gehiago <https://www.lasarte-oria.eus/eu/-/piau> atari digitalean eskura dezakete herritarrek.

ESKUTITZA

Oasi bat?

GAIZKA ETXEBERRIA

Badirudi, egun, antifaxista DNA historiko dugunok, ez dugula lehenetasun politiko gisa ulertzen ideia erreakzionarioen gorakada. Beharbada, Euskal Herriko kale eta guneek aurrez konfiguraturako auto-defentsa mekanismoz josita daudenez, ez gara bost fanatiko batzuetaz arduratu behar. Idealizatutako iragan ezezagun baten nostalgia honetaz baliatzen jarraitzea gustatuko litzazigukeen arren, ukalezina da gizartearen zentroa geroz eta eskuineragoko bidea hartzen ari dela; joera honetan, erreazioak, halabeharrez aurrera egiten du.

Adibide puntualak ziruditen Oriarte institutuan mezu faxista, matxista eta homofoboak zabaltzen zituzten agertutako pintadek, edo herriko kultur eragile baten aurkako eraso homofoboak. Tamalez, "oasiaren" ulerkera egia izatetik inoiz baino urrunago dago. Izan ere, aurreko astean herrian agertutako propaganda faxista horren seinale da. Lasarte ere erakunde faxista hauen arrantza-barruti bihurtu daitezke; behintzat, aipatutako kasuak aintzat harturik, ideia erreakzionarioak zabalduta daude jada. Eta ez dugu soilik gertaera zehatz batzuetara jo behar, faxismoaren

hedapena eskuin muturreko alderdien gorakadan, sare sozialetako ideia erreakzionarioen ugaritzean eta talde faxistek kaleetan duten presentzia ere nabarmentzen ari zaigu.

Horregatik, faxismoaren gorakadaren hutsaltzearen aurka egin behar dugu. Ez diezaiozun utz gorroto intoxikatzailea are gehiago zabaltzen. Agenda belizista eta faxismoa normalizatu ez daitezen, urtarrilak 25ean (Bilbon eta Iruñean) manifestatzera deitzen dugu lasartear oro.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

Bilboko manifestaziora joateko autobusa Tajamarreko birlbilgunetik 16:00etan aterako da. Tikitak Trumoi Tabernan salgai daude, ikasle/langabeek 5 eurotan eta langileek 10 eurotan. Gerra eta faxismoaren aurka, lehen lerrora!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
 - Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
 - Bidali zorion agurra formularioz.
 - Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.
- Posta elektronikoa**
- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4 (behea)
 20160 Lasarte-Oria
 G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
 WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
 Tel.: 943-37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
 Lege Gordailua: SS-513/93
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
 UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ibon Rosalesek *Ordu txikitako argi magikoak* argazki erakusketa zabaldu du.

Jalgi Kafe Antzokia, 09:30etik 22:00etara.

DONOSTIA Erakusketa

Gotzon Huegun eskultore lasarteoriarrak gizakiaren eta naturaren arteko harremana esploratu eta *Sinkronia* izeneko erakusketa ondu du. Martxoaren 16ra arte izango da zabalik.

Cristina Enea fundazioaren egoitza (Mandasko Dukearen pasealekua, 66), 09:30etik 18:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren proiektzioa aurrera eramango du: *Marco*. Moriarte ekoiztetzeko kide Aitor Arregi (pelikularen zuzendarietako bat) eta Joxe Mari Goenaga etorriko dira; lana aurkeztu eta emanaldiaren ostean ikus-entzuleekin solastuko dira. Sarrerak, 6 eurotan.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Lasarte-Oria Osasungintza Publikoaren Alde (LOOPA) plataformak mobilizatzeraz deitu ditu herritarrak, *Non daude gure medikuak?* lelopean aurrera eramango duten manifestazioaren bidez. "2025eko urtarrila da eta ez da bakarrik agindutako tokiak ez dituztela bete, gainera, beste bat gehiago hutsik geratu da, medikua jubilatu egin delako", jakinarazi dute eragile horretako kideek. **Osasun zentrotik abiatuta, 12:00etan.**

DONOSTIA Musika

Udal Musika Eskolako irakasle Miren Etxenagusiaren zenbait ikasleek Palestinan gertatzen ari den sarraskia salatzen ekitaldian parte hartuko dute. *Genozidioa Stop!* lelopean, musika eta dantzaren bidez adieraziko diete elkartasuna palestinarrei. Gauzak horrela,



LASARTE-ORIA Matrikulazioa sustatzeko festa

Sasoeta-Zumaburu eta Garaikoetxea-Landaberi ikastetxeek, udalarekin elkarlanean, haurrak herriko zentroetan matrikulatzea sustatzeko festa aurrera eramango dute.

Etzi, hilak 26, Oriarte Landaberi institutuan, 11:00etatik 13:00etara.

Palestinaren zauria abestia abestu eta dantzatuko dute hainbat kultur eragilek, baita Mikel Laboaren *Txoria txori* ere.

Alderdi Eder parkea, 12:00etatik aurrera.

USURBIL Jaialdia

Odolaren Mintzoa taldeak azken kontzertua emango duela eta, egun osoko jaialdia antolatu du Usurbilgo beste musikari eta eragile ugariarekin batera. Hauxe izango da eskualdeko herri horretan egingo duten ekimen sorta:

Bazkaldu aurretik, Elektropapo txarangak herria girotuko du.

13:30ean, ekitaldia eta bazkaria Agerialdeko jantokian.

Bazkalostean, Anuk eta Eleneren musika emanaldia.

17:30etik aurrera, kontzertuak frontoian: Viafara, Hysteria, Zaparra, Mihise, Txiskeroak, Ameba, Rukula, Odolaren Mintzoa eta DJ Jotatxo. Kontzertuak eman bitartean txosna jarriko du Usurbilgo Ernai gazte erakundeak. **Usurbil, egun osoan zehar.**

LASARTE-ORIA Antzerkia

Artedrama antzerki konpainiak *Miñan* antzeztanaren emanaldia egingo du. Sarrerak 6 euro balio dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA Festa

Herriko ikastetxeetan haurrak matrikulatzea sustatzeko festa aurrera eramango dute Sasoeta-Zumaburu eta Garaikoetxea-Landaberi ikastetxeek, udalarekin elkarlanean. Hezkuntza zentro horietako bakoitzak postu bana izango du bertaratzeko direnei informazioa emateko. Bitartean, joaten direnek tarte on bat igarotzeko aukera izango dute jarduera hauen bidez: aurpegi margoketa, globoak egiteko tailerra, malabaristak, hennarekin egindako tatuajeak eta musika.

Oriarte Landaberi institutua, 11:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrei zuzendutako film bat emango dute, *Sonic 3*. Sarrerak 4 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur etxeko auditorioa, 17:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduei zuzendutako film bat proiektatuko dute: *Cuando el otoño cae*. Sarrerak 6 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek. **Kultur etxeko auditorioa, 19:30etik aurrera.**

ZINEMA ETA ANTZERKIA



LABURPENA

'Marco'

Zuzendaria: Aitor Arregi eta Jon Garaño. **Argazkia:** Javier Agirre. **Ekizleak:** Irusoin, Moriarti Produzioak. **Herrialdea:** Espainia (2024). **Iraupena:** 98 minutu. **Generoa:** Drama, thrillerra. **Aktoreak:** Eduard Fernandez, Nathalie Poza, Daniela Brown.

Kontakizuna, egiaren ginetik

Enric Marco Batlle (Eduard Fernandez) sindikalistaren istorioa kontatu dute *Marco* filmean. CNT sindikatuko idazkari nagusi izan zenak makina bat hitzaldi eman zituen, ikastetxeetan bereziki, honakoa kontatuta: II. Mundu

Gerran naziek eraikitako kontzentrazio esparruetako batetik bizirik atera zela. Gerora, deskubritu zuten bere datuak faltsutu zituela eta Marcok kontatutako bizipen horiek guztiak ez zirela inoiz gertatu.



LABURPENA

'Miñan'

Zuzendaria: Ander Lipus. **Egileak:** Ibrahim Balde, Amets Arzallus. **Egokitzapena:** Timberlake Wertenbaker. **Iraupena:** 90 minutu. **Aktore zuzendaria:** Manez Fuchs. **Aktoreak:** Sambou Diaby, Mikel Kaye, Ander Lipus, Eihara Irazusta.

Ibrahim Balde-ren odiseak

Ibrahim Balde Ginean jaio zen; baina, egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zuen, eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin gurutzatu zen zeharkaldian. Afrikatik

Europarako ibilbidean minak, egarriak eta goseak sorturiko sufrimendua ezagutu zuen. *Miñan* (anaia txikia) Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsona kontakutua eta Artedramak antzerkira egokitutakoa.

2025-2026 ikasturterako

AURREMATRIKULAZIO

DATAK



OTSAILAREN 3TIK 14RA

- Haur Hezkunza (2 - 5 urte / 2023an jaioak)
- Lehen Hezkuntza
- DBH

ZATOZ GU EZAGUTZERA! BANAKAKO BISITAK

Eskatu hitzordua:

 lasalleberrozpe.eus

 **943590557**

Hezkuntza Etapa bakoitzeko
Berrikuntza eta Arreta Pertsonalizatua

